

GIZA ESKUBIDEAK EZAGUTZEA

Jarduera honekin hau landuko dugu:

Giza Eskubideak eta eskubide horien sailkapena.
Eskubideen arteko loturak eta eraginak garrantzitsuak dira gure eguneroko bizitzarako.

Giza Eskubideekiko errespetuzko jarrerak eta haien urraketen aurrean salatzeko jarrerak sortzea.

16. GJHa

Iraupena

Saio bat edo gehiago, lortu nahi den sakontasun-mailaren arabera.

Materiala

Giza Eskubideen taula periodikoa ([esteka](#))
Talde bakoitzeko ordenagailu edo tableta bat.

Garapena

Eskatu parte-hartzaileei giza eskubideei buruz dakitena esateko:

- Zer urtetan aldarrikatu ziren Giza Eskubideak.
- Zenbat atal dituen.
- Eskubide horiek babesten dituzten atalak edo eskubideak...

Idatzi lortzen den informazio guztia. Hala, kontuan hartu nahi da Giza Eskubideei eta atalei buruz dugun ezagutza-maila (edo ezjakintasuna).
"Eskubideen taula periodikoa" aurkeztea, eta hiru eskubide-belaunaldiak labur azaltzea, bakoitzaren ezaugarriak edo berezitasunak nabarmenduz.

Egin 5 edo 6 pertsonako taldeak, eta eman tableta edo pantaila bana, "Giza Eskubideen taula periodikoa" kontsultatu dezaten. Halaber, eskubide horiek betetzen ez dituzten eguneroko egoerak bilatzeko eskatuko diegu, gugandik ahalik eta gertuen daudenak.

Egin gogoeta

Denok batera hausnartzea honelako galderetatik abiatuta:

- Ezagutzen al zenituen Giza Eskubideen atalak?
- Atal horiek sakonago ezagututa, zer iritzi duzue orain?
- Ulertu al duzue belaunaldien arteko aldea eta zentzua?
- Ba al dakizue zuen bizitzako zein egoeratan ez dituzuen giza eskubideak betetzen edo ez zaizkizuen zuei betetzen?
- Zuen mailan, zer esan nahi du 29. atalak? Zer ekarpen egin dezakegu pertsonalki gure inguruan eskubide horiek bete daitezen?

Giza eskubideak ez dira soilik ezagutu behar. Bete eta betearazi egin behar ditugu.